



BEGIRATX1 AROA

UDALEKU IREKIAK

- C1 euskara ikastaroa
- Begirale ikastaroa
- Eskola kiroleko Monitore
- Laguntzaile ikastaroa- EKML



AURKIBIDEA

1. Ongi etorri!

2. Eskaintza- Oferta

2.1. C1 euskara ikastaroa

2.2. Begirale ikastaroa

2.3. Eskola kiroleko monitore laguntzaile ikastaroa- EKML

3. Garraio zerbitzua- Servicio de transporte

4. Izen ematea- Inscripción

1. Ongi etorri!

Ongi etorri Lauaxeta Ikastolako udalekuetara!

Uda une aproposa da deskubritzeko, ikasteko eta gozatzeko.

Udaleku eta udako ekintzek aukera paregabea eskaintzen dute autonomia garatzeko, ingurune aberasgarri batean sozializatzeko eta natura, kirola, sormena eta kultura bezalako arloekin harremanetan esperientzia berriak bizitzeko, edo ezagutzak eta esperientziak sakontzeko.

Ikastolatik, adin-tarte bakoitzari egokitutako ekintza eskaintza bat diseinatu dugu, etapa bakoitzaren interesak eta beharrak kontuan hartuta. Gure helburua da parte-hartzaile bakoitzak gozatzea, haztea, ikastea, edota adinan aurrera eginda, betiere lagunartean eta esperientzia ahaztezinez betetako uda baten alde lan egingo duen monitore talde baten gidariztapean.

Batxilergoaren kasuan, eskaintza titulazioak lortzeko ikastaroak egitera bideratuta dago, horrela etorkizunera begira parte hartzaileen lan-aukerak zabaltzeko asmoz.

Aukerak aztertzeraz eta esperientzia honetara bat egitera animatzen zaituztegu, zalantzarik gabe, parte-hartzaile bakoitzaren etorkizunerako oroitzapen berezi eta bultzada bat izango baita.

Zuen zain gaituzue, aukera eta ikaskuntzaz beteriko uda bat partekatzeko!

¡Ongi etorri a los udalekus Lauaxeta Ikastola!

El verano es un momento perfecto para descubrir, aprender y disfrutar.

Los campamentos y actividades de verano ofrecen una oportunidad única para desarrollar la autonomía, socializar en un entorno enriquecedor y experimentar nuevas experiencias en contacto con la naturaleza, el deporte, la creatividad y la cultura o de ahondar en conocimientos y experiencias que suman.

Desde la ikastola, hemos diseñado una oferta de actividades adaptada a cada edad, teniendo en cuenta los intereses y necesidades de cada etapa. Nuestro objetivo es que cada participante encuentre un espacio donde disfrutar, crecer, estudiar, y vivir experiencias inolvidables, rodeado de amigas y amigos y guiado por monitorado comprometido en que así sea.

En el caso de Bachillerato, la oferta está dirigida precisamente a la realización de cursos que conllevan la obtención de titulaciones y amplían así sus oportunidades laborales de cara al futuro.

Os animamos a explorar las diferentes opciones y a sumaros a esta experiencia que, sin duda, será un recuerdo especial y un impulso para el futuro de cada participante.

¡Os esperamos para compartir un verano lleno de oportunidades y aprendizaje!

2. Eskaintza

Oferta

Noiz garatuko da? ¿Cuándo se desarrollará?	Zein da prezioa ¿Qué precio tiene?	Zein da ordutegia? ¿Cuál es el horario?
C1 EUSKARA IKASTAROA Maiatzak 28tik ekainak 12ra/ Del 28 junio al 12 de junio Ikastaro hau trinkoa da. Aukera honetaz gain, 26-27 ikasturtean C1 euskara ikastaro semipresentziala egiteko aukera ere izango da. Honen berri aurrerago emango da/ Se trata de un curso intensivo para la obtención del C1 de euskara. Además de esta modalidad, lo largo del curso 26-27 existe la posibilidad de realizar el curso semipresencial del que se informará más adelante.	56 € (*)	Maiatzak 28-29, ekainak 1-5 eta 8-10, 9:15-16:30/ 28-29 de mayo, 1-5 de junio y 8-10 de junio 9:15-16:30 Ekainak 11-12, 9:15-13:30/ 11-12 de junio, 9:15-13:30
BEGIRALE IKASTAROA Ekainak 15etik uztailak 3ra/ Del 15 de junio al 3 de julio. Ikastaroa 26-27 ikasturteko asteburu batzuk ere egin ondoren burutzen da, Aurrerago zehaztuko dira zeintzuk/ El curso se completa tras realizar una serie de fines de semana a lo largo del curso 26-27. Se concretará más adelante cuáles.	470 € ekintza soilik eta 60€ autobusa 470€ solo actividad y 60€ autobús	9:15-16:30 9:15-16:30
ESKOLA KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEA IKASTAROA- EKML 26-27 ikasturtean burutuko da. Honen berri aurrerago emango da/ Se desarrollará a lo largo del curso 26-27. Se informará más adelante	-	-

(*) **EUSKARA C1 IKASTAROA:** Ikasturtearen kostu totala 240€takoa da, baina Aurten Bairen bitartez diru laguntza bat kudeatzen da, klaseen % 75eko asistentzia ematen bada. Horrela denean 36€ soilik ordaintzen dira, beti ere diru laguntza hori mantentzen den heinean. Edozein kasutan, Lauaxeta Ikastolak 20€ kobratuko ditu kudeaketa kontzeptuan. Dirulaguntza ikasle bakoitzeko behin eskatu daiteke bakarrik, beraz, bigarren aldiz parte hartuz gero kostu totala ordaindu beharko zan.

(*) **CURSO C1 EUSKARA:** El coste real del curso es de 240€ pero se gestiona una subvención a través de Aurten Bai, siempre y cuando se cumpla una asistencia mínima a las clases del 75%. En ese caso solamente se abonan 36€ siempre y cuando se mantenga dicha subvención. En cualquier caso Lauaxeta Ikastola cobrará 20€ en concepto de gestión. La subvención solo puede solicitarse una vez por cada participante; por lo tanto, si participa por segunda vez, deberá abonar el coste total.

2.1. C1 euskara ikastaroa



Helburuak Objetivos



- **Euskarazko C1 egiaztagiria lortzea, etorkizuneko aukera akademiko eta profesionalak zabalduz.**
 - **Euskarazko komunikazioa hobetzea: Jarduera dinamikoen eta egoera errealeen bidez, ahozko eta idatzizko adierazpenean arintasuna eta konfiantza handitzea.**
 - **Azterketa ofizialerako prestatzea: Azterketaren zati bakoitza estrategia praktikoeekin eta simulakroekin lantzea.**
 - **Modu murgilduan ikastea.**
 - **Azterketaren autonomia eta kudeaketa sustatzea.**
- Obtener la acreditación C1 en euskara, ampliando las oportunidades académicas y profesionales de futuro para quienes la realicen.
 - Mejorar la comunicación en euskara. Ganar fluidez y confianza en la expresión oral y escrita a través de actividades dinámicas y situaciones reales.
 - Prepararse para el examen oficial Trabajar cada una de las partes del examen con estrategias prácticas y simulacros.
 - Aprender de forma inmersiva.
 - Potenciar la autonomía y la gestión del estudio.

Antolakuntza

Organización

Aurten Bai Zornotzako Barnetegiarekin gauzatuko da C1 ikastaro trinkoa. Parte hartzaileek euskara C1 azterketaren lehen fasean aurkezteko aukera izango dute. Jarduera honetan parte hartzeko ikasgai guztiak gaindituta izan behar dira.

Ikastaro hau trinkoa da. Aukera honetaz gain, 26-27 ikasturtean C1 euskara ikastaro semipresentziala egiteko aukera ere izango da. Honen berri aurrerago emango da.

Begirale taldeak dagozkien berme legal guztiak betetzen dituzte.

El curso intensivo C1 se realizará con el barnetegi Aurten Bai de Amorebieta-Etxano. Los participantes podrán presentarse el euskera en la primera fase del examen C1. Para participar en esta actividad hay que haber superado todas las asignaturas.

Se trata de un curso intensivo para la obtención del C1 de euskara.

Además de esta modalidad, lo largo del curso 26-27 existe la posibilidad de realizar el curso semipresencial del que se informará más adelante.

El equipo de monitores y monitoras cumple todos los requisitos legales correspondientes.

Ekintzak

Actividades

Parte-hartzaileek euskara-maila hobetuko dute eta C1 azterketa ofizialetarako prestatuko dira, jarduera dinamikoen eta azterketa-simulakroen bidez. Beren gramatika, hiztegia eta komunikazio-trebetasunak indartuko dituzte ingurune murgiltzaile batean. Gainera, azterketaren zati bakoitzari segurtasunez aurre egiteko funtsezko estrategiak ikasiko dituzte, hizkuntzaren erabileran duten konfiantza eta autonomia indartuz.

Mejorarán su nivel de euskara y se prepararán para los exámenes oficiales de C1 a través de actividades dinámicas y simulacros de examen. Reforzarán su gramática, vocabulario y habilidades comunicativas en un entorno inmersivo. Además, aprenderán estrategias clave para afrontar cada parte del examen con seguridad, potenciando su confianza y autonomía en el uso del idioma.

2.2. Begirale ikastaroa



Helburuak Objetivos

- **Aisialdiko begirale titulua lortzea, etorkizuneko aukera akademiko eta profesionalak zabalduz.**
 - **Begirale gisa ezagutzak eta gaitasunak eskuratzea.**
 - **Taldeak kudeatzen eta bizikidetza sustatzen ikastea.**
 - **Jarduera praktikoak diseinatzea eta gauzatzea**
 - **Eskuratutako ezagutzak benetako dinamiken bidez aplikatzea, adin eta testuinguru desberdinetara egokitutako jolasak, tailerrak eta jarduerak antolatuz.**
 - **Titulazio ofiziala lortzeko lehen faseaosatzea.**
- Obtener la titulación de monitorado de tiempo libre, ampliando las oportunidades académicas y profesionales de futuro para quienes la realicen.
 - Adquirir conocimientos y competencias como monitor/a.
 - Aprender a gestionar grupos y fomentar la convivencia.
 - Diseñar y llevar a cabo actividades prácticas
Aplicar los conocimientos adquiridos mediante dinámicas reales, organizando juegos, talleres y actividades adaptadas a diferentes edades y contextos.
 - Completar la primera fase para la obtención de la titulación oficial.

Antolakuntza

Organización

Formazioaren lehenengo fasea da. Bertan Gaztetxo Eskolak ziurtatutako gure monitore eta profesionalek etorkizuneko aisialdi monitore berriak prestatuko dituzte.

Ikastaroa 26-27 ikasturteko asteburu batzuk ere egin ondoren burutzen da, Aurrerago zehaztuko dira zeintzuk.

Gure begirale taldea ikastolan bertan formatutakoa da eta dagozkien berme legal guztiak betetzen dituzte.

Se trata de la primera fase de la formación. Profesionales certificados por Gaztetxo Eskola prepararán al monitorado de tiempo libre del futuro.

El curso se completa tras realizar una serie de fines de semana a lo largo del curso 26-27. Se concretará más adelante cuáles.

Nuestro equipo de monitores y monitoras se ha formado en la propia ikastola y cumple con todas las garantías legales correspondientes.

Ekintzak

Actividades

Parte-hartzaileek aisialdiko begirale titulu ofiziala lortzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratuko dituzte. Metodologia praktiko eta dinamiko baten bidez, hainbat adin eta testuingurutarako aisialdi hezitzaileko jarduerak diseinatzen, antolatzen eta gidatzen ikasiko dute. Gainera, funtsezko alderdiak landuko dira, hala nola taldeen kudeaketa, gatazken konponbidea eta segurtasuna aire zabaleko jardueretan. Ikaskuntza, bizikidetza eta lan-mundurako prestakuntza uztartzen dituen prestakuntza-esperientzia, aisialdiaren eta hezkuntza ez-formalaren esparruan.

Adquirirán los conocimientos y habilidades necesarias para obtener la titulación oficial de monitor/a de tiempo libre. A través de una metodología práctica y dinámica, aprenderán a diseñar, organizar y liderar actividades de ocio educativo para diferentes edades y contextos. Además, se trabajarán aspectos clave como la gestión de grupos, la resolución de conflictos y la seguridad en actividades al aire libre. Una experiencia formativa que combina aprendizaje, convivencia y preparación para el mundo laboral en el ámbito del ocio y la educación no formal.

2.3. Eskola kiroleko monitore laguntzailea ikastaroa- EKML

Curso para monitorado de deporte escolar- MADE



Helburuak

Objetivos

- **Monitore laguntzaile (EKML) titulua lortzea, etorkizuneko aukera akademiko eta profesionalak zabalduz.**
 - **Adingabeekin kirol jardueretan aritzeko beharrezko prestakuntza pedagogikoa eta segurtasun-arlokoa egiaztatzea.**
 - **Kirol saioak modu egituratuan planifikatzeko eta zuzentzeko gaitasuna eskuratzea.**
 - **Adinaren araberako metodologia egokiak aplikatzea.**
 - **Haurren eta nerabeen ongizatea eta babesa bermatzeko oinarritzko ezagutzak eskuratzea.**
 - **Kirol arloko ibilbide formakuntzan aurrera egiteko lehen urratsa emateko (entrenatzaile maila desberdinetarako sarbidea ahalbidetuz).**
- Obtener la titulación del Curso para monitorado de deporte escolar (MADE) y ampliar las oportunidades académicas y profesionales de futuro.
 - Acreditar la formación pedagógica y de seguridad para trabajar con menores.
 - Planificar y dirigir sesiones deportivas con criterios educativos.
 - Aplicar metodologías adaptadas a las diferentes etapas evolutivas.
 - Garantizar el bienestar y la protección del menor en el ámbito deportivo.
 - Acceder progresivamente a niveles superiores de formación deportiva, constituyendo una base para el desarrollo formativo como entrenador/a.

Antolakuntza

Organización

26-27 ikasturtean burutuko da. Honen berri aurrerago emango da.

Begirale ikastaroagaz bateragarri da eta biak egin daitezke.

Se desarrollará a lo largo del curso 26-27. Se informará más adelante.

Es compatible con el curso de monitorado y pueden realizarse ambos.



Ekintzak

Actividades

Ikastaroak, besteak beste, honako arlo hauek lantzen ditu:

- **Kirolaren oinarri pedagogikoak eta ikuspegi hezitzailea.**
- **Garapen ebolutiboa eta adin-tarte bakoitzaren ezaugarriak.**
- **Saioen antolaketa eta plangintza.**
- **Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa.**
- **Oinarrizko lehen sorospenak.**

Adingabeen babeserako eta ongizaterako prestakuntza espezifikoa.

El curso incluye, entre otros, los siguientes ámbitos:

- Fundamentos pedagógicos del deporte y su enfoque educativo.
- Desarrollo evolutivo en edad escolar.
- Organización y planificación de sesiones.
- Seguridad y prevención de riesgos.
- Nociones básicas de primeros auxilios.
- Formación específica en protección y bienestar de menores.

3. Garraio zerbitzua

Servicio de transporte

Nahi duenarentzat garraio zerbitzua eskuragarri izango da, izen ematen dutenen arabera autobusak antolatuz.






- **C1 ikastaroaren kasuan: ikasturtean zehargo ohiko autobus zerbitzua erabiliko dute.**
- **Begirale ikastaroan kasuan:**
 - **Ekainak 15etik ekainak 18ra: nahi izanez gero udalekuetako autobusean etortzeko aukera izango dute baina etxera bueltatzeko ez.**
 - **Ekainak 18tik uztailak 3ra: nahi izanez gero udalekuetako autobusean etortzeko eta bueltatzeko ere aukera izango dute. Geralekuak ondokoak izango dira:**

Estará disponible el servicio de transporte, organizando los autobuses según las inscripciones.
Del 19 de junio al 3 de julio se contará con 5 líneas.

- En el caso del curso C1: harán uso del sevicio de autobús del curso escolar.
- En el caso del cursop de monitorado:
 - Del 15 al 18 de junio: tendrán la posibilidad de venir en el autobús de udalekus pero no de volver.
 - Del 18 de junio al 3 de julio: tendrán la posibilidad de venir y volver en el autobús de udalekus . Las paradas serán las que siguen:

LAUAXETA IKASTOLA UDALEKUAK

GARRAIO ZERBITZUA - SERVICIO DE TRANSPORTE



LINEEN EGOERA ERABILTZAILEEN ARABERA ALDAKORRA IZAN DAITEKE.
EKAINAREN 19TIK UZTAILAREN 3RA
DEL 19 DE JUNIO AL 3 DE JULIO
LA CONFIGURACIÓN DE LAS LINEAS PODRA MODIFICARSE DEPENDIENDO DE LA CANTIDAD DE USUARIOS

4. Izen ematea

Inscripción

- **Izena emateko epea martxoaren 16ra arte luzatzen da. Plaza eskatzeko, beheko botoian klikatu:**

Izena eman nahi dut

- **Ordainketari dagokionez, prezioaren %50a apirileko ordainagirian gauzatuko da eta beste %50a ekaineko ordainagirian.**
- **Udaleku eskaera atzera botatzea nahiko balitz, hurrengo euki beharko litzateke kontutan.**
 - **Martxoak 30a orduko atzera botako balitz; ez da ezer kobratuko.**
 - **Apirilak 1 - Maiatzak 30 bitartean atzera botako balitz; apirileko ordainagirian ordaindutakoaren %50a bakarrik itzuliko da (hau da, udalekuko prezioaren %25a ez da itzuliko).**
 - **Ekainak 1etik aurrera eta udalekua hasi bitartean; udalekuko prezioaren %50a bakarrik itzuliko da.**

- El plazo de inscripción se extiende hasta el 16 de marzo y podrá realizarse accediendo al siguiente botón:

Quiero inscribirme

- En cuanto al pago, el 50% del precio se hará efectivo en el recibo de abril y el otro 50% en el recibo de junio.
- Si se quisiera cancelar la inscripción, habría que tener en cuenta lo siguiente:
 - Cancelaciones hasta el 30 de marzo; no se cobrará nada.
 - Cancelaciones entre el 1 de abril - 30 de mayo; sólo se devolverá el 50% de lo abonado en el recibo de abril (es decir, no se devolverá el 25% del precio del campamento).
 - Cancelaciones entre el 1 de junio - Hasta el inicio del campamento, sólo se devolverá el 50% del precio del campamento.

- **Behar den eran arrazoitutako osasun arrazoiren bategatik izan ezik, ez da dirua guztiz itzuliko.**
- **Ez da posible plazarik eskatzea, ikasturteko errezipo arrunten ordainketan atzeratuta egonez gero.**
- **Edozein zalantzaratako, idatzi mesedez: eskolazkanpokoak@lauaxeta.eus**

- No se realizarán reembolsos salvo por motivos de salud debidamente justificados.
- No es posible solicitar plaza en caso de estar atrasado en el pago de los recibos ordinarios del curso. En caso de cualquier duda, se puede escribir a eskolazkanpokoak@lauaxeta.eus



LAUAXETA
IKASTOLA

lauaxeta.eus